

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Moderna Ekintzailearen Bekak eman dizkie 35 ekintzaileri

582.000 euroko laguntza emango zaie enpresako 31 proiektu berri

Viernes, 23 de septiembre de 2011

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariak Moderna Ekintzailearen Bekak emateko ekitaldiaren buru izan da gaur goizean. Beka horiek Nafarroako Gobernuak ematen ditu proiektu berritzaileak dituzten enpresen sorrera pizteko, eta bigarren edizio honetan 35 ekintzaile hartu dute 31 enpresako 31 proiektu berritarako. Guztira, bekak 582.000 eurokoak dira.



Moderna Ekintzailearen Bekak. Beka jasotako bere kideen bozeramaile-lanak egin dituen Beatriz Cardona, beka hartzen.

Barcina Lehendakariak bere agerraldian adierazi duenez, "gure helburua sektore estrategikoetan enpresa berritzaileen sorrera sustatzea da; gaitasun handiko eta lan-esperientziako profiletan ekintzaitza piztea; enplegu gaitua do balio erantsia sortzea, eta ekiteko erabakia sustatzea. Ildo horretatik, beka horien bigarren edizio honek arrakasta handia izan duela esan dezakegu, aurten gehiago zaretelako, 31 proiektuekin; iaz, 26 eman ziren".

Bekak emateko ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan burutu da, eta Lehendakariarekin batera, honako hauek izan dira: Álvaro Miranda Simavilla bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasun departamentuko kontseilaria; Lourdes Goicoechea Zubelzu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilaria eta Carmen Leza Villar CEINeko zuzendari-gerentea.

Moderna Ekintzailearen Beka Nafarroako Moderna Planaren helburuen barnean sartzen den ekimena da, kalitatezko enplegua sortuko duen eskualde aberatsago bat lortu ahal izateko. Ekimena 2010ean abian jarri zen [Nafarroako Enpresa eta](#)



[Berrikuntzarako Europako Zentroaren \(CEIN\)](#) laguntzarekin. Horren emaitzaren ondorioz, aurreko edizioan 41 enplegu sortu dituzten 18 enpresa eratu ziren, eta hasierako inbertsio globala 1.360.180 eurokoa izan da.

Moderna Ekintzailearen Bekak emateko ekitaldia. Barcina Lehendakaria bekadunekin eta ekitaldian izandako guztiekin.

[Everis](#) eta [MTorres](#) enpresak izan dira Moderna Ekintzailearen Beka honen bigarren deialdi honen babesleak, eta onuradunei laguntza-programa osoago bat eskaintzen die. Bederatzi hilabetez 2.000 euro arteko esleipen ekonomikoaz gain, prestakuntza sartzan da IESEk emandako enpresa-kudeaketan eta ekintzaileei laguntzen dien CEINeko irakasle pertsonal bat (finantzaketa bilatzen, adibidez); baita CEINen instalazioetan erabilera eskusiboko langune bat erabiltzea eta prestakuntzako ibilbide pertsonalizatu bat enpresa-kudeaketa eta lehia digitalen alorrean ere. Aurten sartutako beste hobekuntza bat lan-metodologia berri baten inplementazioa da enpresak sortu eta merkatuan jartzeko, CEINek diseinatutakoa eta *Metodologia Arinak, Ekintzailtza arina* ereduaren oinarritutakoa. Gainera, edizio honetan, bekatutako bi proiektu programaren egungo babesleak izango dituzte aholkulari: Everis-ek Jesús Martínezek sustatutako *Nitio Technology Solutions*, enpresaren babeslea da, eta MTorres-ek Ainhoa Estenoz Abendaño eta José Cruz Pérez Pi-k sustatutako *Dime: guztientzako teknologia*, babesten du.

2011/2012ko Moderna Ekintzailearen Bekak, zifretan

Moderna Ekintzailearen Beken programak edizio honetan jasotako 260 hautagaitzatatik enpresako 31 ekimen lagunduko ditu. 69 bazkide-sustatzailek sustatutakoak dira, eta kopuru horretatik 35 programan sartzan dira bekadun gisa. Programan sartzan diren pertsonen profila gizonezkoa da (% 77), 31 urtekoa batez beste eta unibertsitate-ikasketak dituen (% 91). Unibertsitarioren % 81 karrera teknikoetatik eta zientzietatik etorritakoak dira, eta ingeniarietan titulaturakoen kopuru handia azpimarratu behar da (% 69).

Negozio-ekimen horien sustatzaileen erdiak baino gehiagok (% 52) aurretiaz ekintzailtzaiko esperientzia handiagoa izan dute, eta bekadunen % 50ak lan-jarduera bat zuen programan sartu aurretik, besteren kontura edo norberaren kontura (% 20).

Beka jasotako negozio-ideia gehienak (% 39) ekonomia berdearekin zerikusia dute: energia berriztagarriak (4), nekazaritzako elikadura (3), ibilgailu iraunkorra eta hondakinak (2) eta turismo iraunkorra (2), Moderna Planak ezartzen duen sektoreen sailkapenaren arabera. Bigarren postuan (% 23) talentuaren ekonomiaren sektoreko proiektuak daude, eta azken horien barnean: enpresa-zerbitzuak (5), mekatronika (1) eta ezagutzaren hezkuntza nahiz sorrera (1). Jarraian datoz, informazio eta komunikazioaren teknologiak, IKTak, (% 19, 6 proiektu), kontsumoko ondasunak (% 10, 3 proiektu), merkataritza (% 6, 2 proiektu) eta gizarte-berrikuntza (% 3, proiektu bat).

Onuradunak

Bigarren edizio honeako beken 35 onuradunak dira: Tomás Moro, Ane Hernando Mantas, Beatriz Cardona Tamayo, Miguel Sola Camps, Ainhoa Esténoz Abendaño, José Cruz Pérez Pi, Ana Escribano Cumba, Jesús Martínez Sánchez Dehesa, Alfonso Prim Sorbet, Luis Rodríguez Castillo, David Herrero Fernández, Hernando Herrero Fernández, Olga Patricia Rodríguez Queija, José María Cabello García, Daniel Martínez Gómez, Guillem Mateos Gustemps, Marc Abadie, Pablo Aldaz Oroz, Alfredo Garayoa Luquin, Roberto Touza David, Javier Vidorreta Salillas, Javier Alba Lostado, Ángel Jesús Hurtado Díaz de Cerio, Maite Barinagarrementeria Zabaleta, Carlos González Vázquez, Gorka Ibarгойen Prieto, Diego González González, Jordi Vicente Rubio, Beatriz Centelles Zulategui, Matías Hernández Van Waes, Christian Doyle, Ana Fernández Zubieta, Jon Pueyo Díaz De Cerio, Julián Elizalde Cortajarena eta Aritz Larrea Oyarzun.